


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

GrAL Zuzendaria: Ibon Telleria. Ikaslea: Maitane Enara Diez Izagirre.



- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -


Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

GrAL Zuzendaria: Ibon Telleria. Ikaslea: Maitane Enara Diez Izagirre.

- SARRERA -

Gradu Amaierako Lan honetan Azpeitiko Foru Pasealekuaren zati baten lankeza burutzea proposatzen da. Horretarako, lehenik Gipuzkoa erdigunean kokaturiko herri honetako analisi bat egin da, bai bilakaera historikoari dagokionez, eta baita gaur egungo gaiari dagokionez ere. Proiektu hau herriaren eremu, euskara eta turismoan zentratuko da, hiru gai hauek lotuz.

*"bai ondoko lerroan
gure izanaren erroak
sakontzen goaz geroan."*



- AURKIBIDEA -

0. LABUR-LABUR.....	01	3.2.2. Kolonizazio sistema.....	22
1. DIAGNOSIA		3.3. Faseak.....	23
1.1. Kokapena		3.4. Eraikinaren programa eta funtzionamendua.....	24
1.1.1. Euskal Herria, Azpeitia.....	02	3.5. Proposamen planoak	
1.1.2. Gipuzkoa, Azpeitia.....	03	3.5.1. Kokapena (e: 1/4.000).....	25
1.1.3. Azpeitia.....	04	3.5.2. Antolaketa orokorra	
1.1.4. Eremua.....	05	3.5.2.1. Kokapen gertua (e: 1/800).....	26
1.2. Marko historikoa		3.5.2.2. Behe solairua (e: 1/400).....	27
1.2.1. Azpeitiaren bilakaera historikoa.....	06	3.5.2.3. Lehen solairua (e: 1/400).....	28
1.2.2. Eremuaren bilakaera historikoa.		3.5.2.4. Bigarren solairua (e: 1/400).....	29
1.2.2.1. Eremua.....	07-08	3.5.2.2. Lurpeko lehen solairua (e: 1/400).....	30
1.2.2.2. Komentua.....	09	3.5.2.3. Lurpeko bigarren solairua (e: 1/400).....	31
1.2.2.1. Komentuaren bilakaera historikoa.....	10	3.5.2.4. Paselekuko altxaera (e: 1/400).....	32
1.2.2.2. Fabrika.....	11	3.5.2.5. Barne altxaera (e: 1/400).....	32
1.2.2.3. Fabrikaren bilakaera historikoa.....	12	3.5.2.6. Ebaketa pasabidetik (e: 1/400).....	33
1.3. Gaur egungo egoera		3.5.3. Garatutako antolaketa	
1.3.1. Behe solairua.....	13	3.5.3.1. Behe solairua (e: 1/200).....	34
1.3.2. Lehen eta bigarren solairua.....	14	3.5.3.2. Lehen solairua (e: 1/200).....	35
1.3.3. Altxaera eta zeharkako ebaketak.....	15	3.5.3.3. Bigarren solairua (e: 1/200).....	36
1.4. Diagnosi ondorioak.....	16	3.5.3.4. Ebaketa pasabidetik (e: 1/200).....	37
1.5. Bibliografia.....	17	3.5.3.5. Ebaketa bulegoen eraikinetik (e: 1/200).....	38
2. HIRIGINTZA		3.5.3.6. Ebaketa fugatua (e: 1/100).....	39
2.1. Hirigintza arauak.....	18	3.5.4. Atmosferak.....	40-41
2.2. Hirigintza ondorioak.....	19	4. ATAL TEKNIKOA	
3. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA		4.1. Egitura.....	44
3.1. Helburuak.....	20	4.2. Instalakuntzak.....	45
3.2. Estrategia		4.3. Eraikuntza (e: 1/30).....	46-47
3.2.1. Antolakuntza irizpideak.....	21		

- LABUR - LABUR -

- NON -

Zelai Luze pasealekuan. Hain zuzen ere, Frantziskanen komentu eta Marcial Ucin enpresa zenaren bulego eraikinean.


Azpeitian kokatzen den pasealeku hau Foru Ibilbidearen barne dagoen zati bat da. Urola ibaiari paralelo, lerro zuzen batean zehar garatzen da.

Herriko muga moduan uler daitekeen pasealekua da honako hau. Alde batetik, eta aipatu bezala, iparraldean Urola ibaia du. Beste aldetik, berriaz, eraikin ilara bat du mugakide pasealekuak. Eraikin hauen artean Frantziskanen komentu bat eta fabrika zaharren bulegoak daude.

Lekaimetxea klausurakoa izanik, fatxada itxi eta gogorra du kaleari begira. Eraikin honen fatxadak bi mundu bereizten dituela esan daiteke, festetan txosnak kokatzen diren pasealekua alde batean eta bestean berriaz, aspaldiko bizimoduarekin jarraitzen duten mojak. Gainera, beste komentu askotan bezala, mojen adina goraka eta kopurua beheraka doa, eta ondorioz, eraikinaren zati handi bat hutsik gelditu da.

Bulego eraikinak beste arrazoi batengatik du fatxada itxia. 1999an Marcial Ucin enpresa saldu zenean, eraikin hau ez zen eskualdatu.

Beraz, pasealekuak izoztuta gelditu den fatxada bat duela esan daiteke.




- ZER -

Euskal etxe bat garatuko da. Hizkuntza eta turismoa uztartzeko helburuarekin. Bertan euskaltegi eta ostatu bat proposatzen dira.

Etorkizunean jaso ahalko diren erabilerak ere kontuan hartuko dira. Hala ere, ez da proposatzen etorkizunerako programa itxi bat, alderantziz, eraikina hedatzeko sistema bat proposatzen da. Edukirik gabeko arkitekturen jarraiki, herriari egitura bat eskainiko zaio, espazio potentzial modura. Honen malgutasuna dela-eta, erabilera sorta zabal bat jaso ahalko du, urteen poderioz sortuko diren behar desberdinak asetzuz.

Hau guztia, eremuaren antolaketa orokor baten barnean ulertu beharra dago. Hasiera batean, fatxada gogor hori eta atzeko espazio berdea herritarrei irekitzea izango da helburua. Bigarren helburua, eremua kolonizatzeke tresna bat eskaintzea izango da, sistema moduan ulertuko den hedatze aukera.

Hortik dator GrAL-aren izeburua: "lerroak irekiz, erroak sakontzen". Lerro moduan muga edota fatxada hori ulertuz (alde fisikoa) eta erro moduan euskara eta euskal kultura (alde soziala).




- ZERGATIK -

Euskaraz bizitzeko aukera ematen duelako herriak.

Xedeetako bat euskara sustatzea eta indartzea da. Azpeitian euskararen erabilera altua da, neurri horretako herriein alderatuz, altuena. Tamaina ertaineko udalerri bat izanik, egunerokotasunean beharreko zerbitzu guztiak barneratzen ditu. Ondorioz, bi alderdi horiek direla-eta, euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen du.

Beraz, gainbeheran dagoen hizkuntza honen arnagune honi etekina ateratzea da helburua.

Honekin, beste turismo mota bat erakarri nahi da herrira, eredu desberdin baten bidez. Izan ere, gaur egun herriak duen bisitari perfila oso homogeneoa da. Egungo ostalaritza zerbitzua urria eta ohiko eredukoa da, turismoaren estandarizazio batera jotzen duelarik, aniztasunera bideratu beharrean.




- NORENTZAT -

Herritar zein bisitariarentzat erakargarria izango den gunea proiektatzea izango da jomuga nagusia.

Herritarrei fatxada hori irekiz, orain arte igarogaitza izan den "harresi" horren atzeko alde eskaintzeko aukera azaleratzen da.

Hautaturiko eremua zati handi batean berdegunea da, jabetza pribatu eta erabilera urrikoa. Herriaren dentsitatea eta berdeguneen harremana aztertuz gero, herri barneko arnagune berdeen beharra nabari da. Beraz, pasealekuko fatxadaren irekitzeak, berdegune hau eskuragarri bihurtzea ahalbideratuko du.

Bisitariarentzat ere interesgarria izatea bilatzen da. Bai orokorrean herria ezagutu nahi duenarentzat baina baita, eta gehienbat, euskararen ondorioz gerturatzen direnentzat.




- NOIZ -

Proposamena faseka egitea aurrakusten da. Denboraren kontzeptua, jabetza desberdinak eta kudeaketa kontuak barneratuz.

Fase bakoitzak bere horretan funtzionatzeko autonomia izango du, baina, osotasun batean elkarren osagarri ere izango dira. Beraz, ez dute dependentziarik izango, baina elkar osatu ahalko dira.


Lehenik eremua aztertu eta diagnosi bat egin da, hortik estrategia batzuk ateratzeko. Ondoren, etorriko dira faseak.

Eremua handia izanik, hainbat zatitan egitea komeni da, bai ekonomia aldetik bideragarria izateko, eta baita jabetza kudeaketa konplexua izan daitekeelako ere. Eremu hau jabetza pribatukoa da, alde batetik Marcial Ucin enpresaren jabetza dago eta bestetik, Eliza. Gainera, komentua erabilera egonik, nahiz eta gutxi izan, kontuan hartu beharko da.




- DIAGNOSIA -

- EUSKARA GAITASUNA. 2014 -



■ % 100 - 70 ■ % 69,9 - 35,1 ■ % 35 - 0 ■ -


- EUSKARAREN ERABILERA SOZIALAREN TASA. 2014 -



■ % 98,3 - 45,5 ■ % 45,4 - 17,8 ■ % 17,7 - 2,1 ■ % 2 - 0,3 ■ % 0,2 - 0

Iturria: UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) ATLASA. Euskara eta identitatea. Euskararen erabilera sozialaren tasa (%).

- HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. 2011 - 2016 -



Iturria: Azpeitiko hizkuntza-erabilerearen eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.

Euskal Herriaren goialdean kokatzen da Azpeitia, ipar-mendebaldean hain zuzen ere. Jarraian, bertan bereizgarria den hizkuntza aztertzeari ekingo zaio, gaur egungo egoeraren analisi batekin:

EUSKARAREN EGOERA OROKORRA

Lehen sententzio batean, badirudi gainbeheran dagoen hizkuntza bat dela. Begirada azkar bat botaz gero, ordea, berehala ikus daiteke bi alderdi daudela. Alde batetik, hizkuntza gaitasuna dago, eta bestetik, hizkuntza erabilera.

Gaur egun, euskarak inoiz izan dituen ulermen ehuneko handienak ditu (ikus euskara gaitasuna irudia).

Erabileraz, ordea, ezin daiteke berdina esan (ikus euskararen erabilera sozialaren tasa irudia). Hor dago arazoa. Zergatik bestela hizkuntza egoera txarrean dagoelaren irudipena, inoiz izan dituen ulermen ehuneko handienak baditu? Besteak beste, hiru arazoi daude tartean:

- Hizkuntza erraldoiz inguratua dagoelako euskal lurraldea: gaztelera, inglesa, frantsesa...
- Betidanik erreprimetua izan delako: hizkuntza txikia dela, etxerako hizkuntza dela...
- Erabilera urria delako: Jarraian dauden datuek argi uzten dute, nahiz eta gaitasuna baden, erabilera ulermenetik oso urruti dagoela.

PROBINTZIAK	EUSKARA GAITASUNA (%)	EUSKARAREN ERABILERA SOZIALAREN TASA (%):
Gipuzkoa	% 64,64	% 32,7
Nafarroa Garaia	% 16,39	% 5,7
Bizkaia	% 44,74	% 9,4
Araba	% 36,91	% 4
Lapurdi	*	% 1,18
Nafarroa Beherea	*	% 18,09
Zuberoa	*	% 30,54

* Hiru probintzia horietako daturik ez dago.

Iturria: UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) atlasa.

Kike Amonariz soziolinguistaren arabera, bi alderdi hauen irakurketa bateratu bat eginez gero, hizkuntza momentu erabakior batean dagoela ondorioztatu daiteke:

"bidegurutzan dago euskara [...] Bi aukera daude: ulermenaren unibertsalizaziotik oso gertu dagoen belaunaldiak erabilerarako urratsa egiten baddu, euskara normalizatze bidean jarriko dugu; aldiz, belaunaldi bat izango dugu euskaraz badakiena baina ez duena erabiltzen, eta orduan gertatuko da Irlandan gaelikoarekin gertatutakoa: erabiltzen ez denez, zertarako ikasi. [...] Zoru komuna sortu behar da eragile guztiak eroso sentitze eta elkarlana ahalbideratzeko; gizartea aktibatu behar da, eta erabilera sustatu. Euskara erabiltzeko baldintzak sortu behar ditugu. [...] Azpeitiak ardua berezia du erabileraren aktibazio horretan: herri koskorren artean euskaldunena izanik, eredu izan behar du".


Iturria: Hitzaldia, Euskarak 365 egun Azpeitian, Kike Amonariz.


EUSKARAREN EGOERA SOZIOLOGIKOA AZPEITIAN

2016ko kale erabilera neurketak dio % 81,9k euskaraz egiten duela. 2009an, herritarren % 86 ari zen euskaraz. Datu horiek, Gipuzkoako % 32,7tik oso gora daude. Gainera, ahul baino ahulago dagoen hitanoa gehien hitz egingo den herrietakoa izango da Azpeitia. Lehen aldiz egin den kale neurketaren arabera %18,1ak egiten du hika.

Biztanle kopuru horretako (15.000 inguru) Euskal Herriko herririk euskaldunena da.

Beraz, Azpeitia euskararen arnagune bezala uler daiteke. Arnaguneek funtzio sozial ahalik eta gehienak euskaraz betetzeko aukerari eusten diote, eta ezinbestekoak dira hizkuntza-komunitatearen garapenerako.





Gipuzkoako Urola Erdia eskualdean dago Azpeitia, Izarraitz mendigunearen magalean eta Urola ibaiatz zeharkatua. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren erdiguneko herri honek 14.000tik gora biztanle ditu eta Gipuzkoako udalerririk handienetako da, hedadurari dagokionez.

TURISMOAREN EGOERA AZPEITIAN

Loiolako Santutegiak oso ezagun egin du Azpeitia. Loiolako Ignazio Deunaren jaiotetxeak milaka bisitari erakartzen ditu urtero Loiola auzora.

Loiolako multzoaz gain, hamaika monumentu azpimarratu behar dira Azpeitian. Hala nola, Soreasuko Sebastian Deunaren parroikia eta bertako Bakardadearen Kapera, Enparan dorretxea, Madalenako ermita eta ospitalea, Antxieta jauregia eta Garbilekua, besteak beste.

Gaur egun bisitari gehien jasotzen dituztenak Loiola zein Burdinbidearen Euskal Museoa dira.

Udalaren helburua turismo hau herrira erakartzea da. Baina, aldi berean, herriak turismorako dituen zerbitzuak urriak dira.

Ostalaritzari dagokionez, hiru hotel daude herrian, bi Loiola aldean eta bat herrigunetik hiru kilometrora. Gutxi izateaz gain, eskaintzen den ereduak ez du bisitarien aniztasunean laguntzen, ahalmen ekonomiko jakin bat dutenentzat baitago soilik bideratua.

Turismo informazioari dagokionez, berriz, Turismo bulegoa eta interpretazio zentroa jarriko da Basazabal jauregian, Zelai Luzeren parean, ibaiatz bestalde.

- AZPEITIKO TURISMOAREN MAPA. 2017 -



TURISMOA ETA EUSKARAEN UZTARKETA, UEMA ETA AZPEITIKO UDALA

"Azpeitian krisi ekonomikoak gogor jo zuen, Marcial Ucin izan zenaren itxieraren eskutik. Langabezia %17koa zen 2013an. Gaur egun %10ekoa da. Langabe gutxiago daude Urola bailarako herrian, baina egoera gehiago hobetzeko asmotan da Udala. Lehenetsuna ekonomia sustatzea da, eta besteak beste, **turismoa bisitu nahi dute, baina ez nolanahi.**

Gaur egun bi gune turistiko garrantzitsu ditu herriak, Loiolako santutegia eta Burdinbidearen Euskal Museoa. Baina **helburu nagusia bisitariak herrira erakartzea da, herritarrak eta euskara** bera bisitariarentzat **erakargarri eginez, hau da, azpeitiarrak beraiek, euskara eta euskal kultura erdigunean jarritz.** Alde batetik nortasuna babesteko gogoeta beharrezkoa da, baina era berean nortasun hori bera bisitariarentzat amu izan daiteke. **Azpeitia 10.000 biztanletik gorako herrien artean euskaldunena da, beraz, euskaraz bisitatzeko eta bizitzeko aukera ematen du.**

Bi gaiak, turismoa eta euskara, uztartuta ez da gogoeta asko egin izan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean turismoa eta hizkuntza lotzen dituen lantaldea lanean hasi da eta Azpeitiko Udalak hausnarketa horretatik edan du."

Iturriak: Argia eta Azpeitian zer? aldizkariak.


LEGENDA

Azpeitiko ostalaritza:

- 1 Loiolako multzoa: Loiolako Santutegia, Loiolako Ignazio Deunaren jaiotetxea...
- 2 Soreasuko Sebastian Deunaren parroikia eta bertako Bakardadearen Kapera.
- 3 Enparan dorretxea.
- 4 Madalenako ermita eta ospitalea.
- 5 Antxieta jauregia eta Garbilekua.


Turismo puntu nagusiak:

- A Mendiko aterpetxea.
- B Landako nekazal turismoa.
- D Hotela.
- E Hotela.
- F Hotela.



Eskala: 1/30.000 0 3.000 6.000 15.000 m

- HIRI MAILAKO GUNE BERDEAK AZPEITIAN -



Azpeitiko udalerriak 70 km² pasatxoko azalera du. Udalerriko hirigunearen azalera, ordea, 3.122.415 m²-koa da, hau da, udalerriaren azaleraren % 4,50. Lurraldea malkartsua da topografiari dagokionez, ondorioz, Urola eta Ibaieder ibaien elkarguneko hirigune hau maldaz inguratuturik dago.

Industria-erabilerarako edo ekonomia-jardueretarako kalifikatutako hiriguneko lurzoruen azalera, industria-sektorean espezializatutakoak, hirigunearen azalera osoaren % 50 hartzen du, gutxi gorabehera.

Bizitegi-erabilerarako hiriguneko azalera hirigunearen laurdena baino zertxobait gehiago da. Hirigunean hektareako 60 etxebizitza inguruko batez besteko dentsitatea ematen du horrek, hiri-izera ematen diona eta erdiguneko erabilera-nahasketak berresten duena, izan ere, merkataritza erabilerak, bulegoenak eta zerbitzuak baitaude bertan.

Bestalde, Azpeitiak landa-eremu zabala du eta baserri sakabanatu ugari, hutsen proportzio handiarekin.

HIRI-BERDEGUEAK

Herriko dentsitate handiari erantzuteko hiri mailako berdeguneen beharra dago. Honen harira, herriko berdegune nagusiak aztertu dira, ezaugarri nagusiak analizatuz.



1	Loiolako gogarte etxea		EZAUGARRIAK		DATUAK	Azalera: 87.599,35 m ² Batez besteko malda: % 1,5 Jabaria: Pribatua Erabilera: Publikoa Egokitasuna:
---	------------------------	--	-------------	--	--------	---

2	Loiolako lorategia		EZAUGARRIAK		DATUAK	Azalera: 21.080,64 m ² Batez besteko malda: < % 1 Jabaria: Publikoa Erabilera: Publikoa Egokitasuna:
---	--------------------	--	-------------	--	--------	---

3	Izarraizko atea		EZAUGARRIAK		DATUAK	Azalera: 38.355,31 m ² Batez besteko malda: > % 2 Jabaria: Publikoa Erabilera: Publikoa Egokitasuna:
---	-----------------	--	-------------	--	--------	---

4	Goenako belardia		EZAUGARRIAK		DATUAK	Azalera: 45.085,87 m ² Batez besteko malda: > % 6 Jabaria: Publikoa Erabilera: Publikoa Egokitasuna:
---	------------------	--	-------------	--	--------	---

5	Amilibia		EZAUGARRIAK		DATUAK	Azalera: 19.331,36 m ² Batez besteko malda: < % 1 Jabaria: Pribatua Erabilera: Pribatua Egokitasuna:
---	----------	--	-------------	--	--------	---




Eskala: 1/12.500 0 1.250 2.500 6.250 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

Eremua alde zaharren ondoan kokatzen da, ibaiaz bestalde. Luzerako ardatz interesgarria da, elementu desberdin askok hartzen baitute parte bertan. Jarduera hauen analisi bat egin da; zer, nork, noiz eta noiz erabiltzen dituzten ulertzeko.



ZK.	1	2	3	4	10
ZER	KOMENTUA	BULEGOAK	ETXEBIZITZAK	INDUSTRIA	
NORK					
NOIZ					
IKUR.					

5	6	7	8	9
LARREA	LORATEGIA	BARATZAK	AZOKA PLAZA	ZAHAR EGOITZA

11	12	13	14	15
SALTOKIA	LIBURUTEGIA	TREN GELTOKIA	GAZTETXEA	ANTZOKIA

17	18	19	20	19	21
TURISMO PTUA	UDALETXEA	PILOTALEKUA	GAZTELEKUA	PLAZA NAGUSIA	



Eskala: 1/3.000 0 300 600 1.500 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- AZPEITIAREN BILAKAERA HISTORIKOA -

Gaztelako Fernando IV.ak sortu zuen herria 1310. urtean, Garmendia de Iraurgi izenarekin. Azpeitiko hiribildua Urola eta Ibaieder ibaiek bat egiten duten tokian hasi zen, hain zuzen ere, aztergai dugun pasealekuaren ibaiatz bestalde.

700 urte hauetan zehar, herriak bilakaera zabala izan du. Garapen hori ezagutzea ezinbestekoa da Foru Pasealekua ulertzeko. Beraz, hona hemen laburpen bat:

ERDI AROA

Haseran hiru kalez osaturiko hiribildu bat zen. Erdi Aroan harresiz bestalde gutxi hedatzen zen: hainbat baserri eta Enparan dorretxea.

ARO MODERNOA

Aro Modernoan errebala eta Erdi Aroko gunearen arteko espazioetan plaza berriak hasi ziren garatzen, azokak eta feriak egiteko. Garai hartan komentuek indarra hartu zuten herrian, eta ondorioz, eratu berri zen plazaren inguruan San Agustin komentua (XVI. mende amaiera), Santo Domingo komentua (XVII. mendea) finkatu ziren. Baina bazen beste komentu bat: Sortzez Garbiaren Komentua (Frantziskanak). Nahiz eta komentu hau plazan ez egon, herriaren garapenean garrantzia izan duen komentu dugu, sortzen lehengoetakoa. Zatika eraiki zen (XVI - XVIII): patio inguruko eraikina lehenik, komentuko eliza gerora eta zabalkuntza azkenik.


INDUSTRIALIZAZIOA

XIX. mendearen amaierak etorkizun oparoa eskaintzen zien industria-gizon gipuzkoarrei, baita azpeitiarrei ere. Banco Guipuzcoano sortu zen, komunikazioetan trenbide gero eta hedatuagoek aukera berriak zekartzaten eta elektrizitatea energia-iturri berria zen. Oinarri horiek guztiak aldekoak ziren sortzen ari zen industria eta enpresa-egoera berrian. Damaso Azcueren altzari lantegia (1915) mugari izan zen prozesu honetan. Ibaiaz bestalde kokatu zen hau, Enparan dorretxearen iparraldean. Honez gain, beste industria txiki ugari sortu ziren, harien artean, Ucinen fabrika, sektore metalurgikoan. 30eko hamarkadan oraindik oso txikia zen, 8 langile besterik ez zituen.

GAUR EGUN

Egun, Azpeitia ikaragari aldatua aurki dezakegu. XX. mendeko industriaren gorakadak etxebizitza eraikinak egitera eraman zuen. Marcial Ucin S.A. (gerora Corrugados Azpeitia S.L) izan zen herriko industria garrantzitsuena. Enpresa hori Ucinarek 30. hamarkadan eraikitako familiako tailer txikitik sortu zen 1958an. Urte haietan eraiki zituzten bulegoen eraikina eta lehen pabilioia Foruen Pasealekuan, Sortzez Garbiaren komentuaren alboan. 2013an itxi zen Azpeitian izugarizko inpaktu duen enpresa hau.

Iturriak: "Azpeitia ezagutzen" liburuxken (Azpeitiko udala) eta turismo panelaren (Kaioa a.s.p.), interpretazio pertsonala.



- ERDI AROA -

- ARO MODERNOA -

- INDUSTRIALIZAZIO GARAIA -

- GAUR EGUN -

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- DIAGNOSIA - 1.2. MARKO HISTORIKOA



Zelai Luze pasealekua ibaiaz bestalde, alde zaharretik.



Zelai Luze pasealekua, Azoka plaza eta plaza nagusi eta alde zaharrerako zubia ezker aldean.

Urola eta Ibaieder ibaiek bat egiten duten tokian, Alde zahar eta Urola ibaiari paralelo, Zelai Luze deritzo Foru Pasealekuaren zati bati, Azoka Plazatik Udal Liburutegi artekoari hain zuzen ere. Luzerako ardatz interesgarria da, elementu desberdin askok hartzen baitute parte bertan.

Alde zahararen alboan kokatzen da, garai bateko harresiari paralelo, ibaiaz bestaldean. Berdegune luze bat eta bi norantzako errepide bat barneratzen ditu. Errepideaz bestalde espalo estu bat dago, zeinaren egoera ez den batere ona. Eraikinei dagokienez, lerro interesgarria da. Alde batetik, aurrez aipaturiko Sortzez Garbiaren komentua dago, liburutegi ondoan; bestetik, Marcial Ucin enpresaren garai bateko bulego eraikina eta etxebizitza eraikin bat dago.

Herriko muga moduan uler daitekeen pasealekua da honako hau. Garai batean alde zaharrean zegoen harresia ibaiaz bestalde pasa izan balitz bezala, egun ia erabilerarik ez duen fatxada jarrai batekin erantzuten dio herriari. Eraikin lerro honek bi mundu bereizten ditu, alde batean aktibitatearen pasealeku eta herriko alde zaharra, eta bestean, ia erabilerarik gabeko herriaren atzeko alde: Komentuko belardia eta fabrika zaharra.




Komentuko lorategia, atzean belardiak, eta azkenik Corrugados fabrika.



Bulego eraikin eta Komentuaren arteko zatia, eremu barnetik.



Corrugados fabrikatik, Komentuko belardi eta Marcial Ucin fabrikaren hastapenak. Atzean herria.



Nafar Erreinuaren pixkanakako desintegrazioarekin euskal lurraldeetako batzuk Gaztelaren eskuetan geratu ziren. Aginte berri honek, kosta eta Europarako bidea "egokitzeko" helburuarekin, lurralde hauek okupatu eta kristautatzea bilatu zuen. Xede honen atzetik, hiribildu berriak sortzeko, foru eta eskubideak banatu zituzten nonahi. XV-XVI.mende inguruan, herrixka hauek kontsolidatu eta babesa lortzen duten heinean, komentuak agertzen hasi ziren zenbait hiribilduren inguru gertuan.

Sistema honekin jarraituz, XVIII.mendera artean kongregazioen bitartez kristautasunak hedatzen jarraitu zuen. Kasu batzuetan eraikin guztiz berriak egin ziren eta beste batzuetan, aipatutako XV-XVI.mendeko jatorrizko eraikinek handipenak jasan zituzten. Puntu honetatik aurrera, izandako garai gorena itzaltzen eta eraikuntza berri eta handipenen kopurua jeisten joan zen gutxinaka.

Hain zuzen ere, Azpeitia eta Frantziskanen lekaimetxeak azaladutako eredu hau bera jarraitzen dute, Gipuzkoan zehar sakabanatutako beste hainbeste bezala (Arrasate, Azkoitia, Bergara, Hernani, Lasarte-Oria, Mutriku, Oñati, Segura, Tolosa, Zarautz eta Zumaia besteak beste).

Frantziskanen komentuak XVI. mendean eraikitzen hasi eta XVIII. mendera arte handipenak jasan zituen: faseka izan zen eraikia. XVI. mendearen amaieran altxatu zuten eraikin nagusia, patio baten inguruan, ondoren eliza berreraiki zen eta azkenik, klaustrodun eraikinari zabalkuntza bat gehitu zitzaion XVIII.menderako. Antzina Amilibia deitzen zen parajearen lursail handi bat hartzen du, hiribilduaren harresiz kanpoko gunea dena, Urola ibaiaren bestaldean eta Enparan etxearen inguruan, eliza Juan XXIII kalearekin eta fatxada nagusia Foruen Ibilbidearekin mugatuz. Gaur egun multzo honen erabilera zeharo ahulduta dago, mojen adina goraka eta kopurua beheraka doalako. Ondorioz, eraikinaren zati handi bat hutsik gelditu da. Beraz, esan daiteke momentu erabakior batean dagoela eraikin hau, eta baita antzeko beste eraikin asko ere.



Frantziskanen eliza eta komentua Enparan dorretxeko zubitik.



Komentuaren handipena, belarditik.



Komentuko patioa, klaustroko irekiuneak leihoz itxita.



Klaustro barnea, antzinako leihoekin.



Handipenaren behe solairua.



Handipenaren goi solairua.




Antzinako lekaimen logelak.




Pasealekuranzko leihoa.



Ibaiaz bestalde, Basazabal jauregia.



Leihoko trama.



- 1568 -

Martin de Armendiaren proiektua sinatu zen: patio tipologiako komentu bat, lau aldeetako batean eliza kokatzeko pentsatua. Ordurako jada zimentazio lanak hasiak zeuden.

- 1573 -

Bi alde eraiki ziren, behe oina eta lehen solairua.

- 1580 -

Estalkipea eta estalkia eraiki ziren eta baita falta zen alde.

- 1597 -

Klaustroaren enkargua egin zen.

- 1605 -

Klaustroa bukatu zen.

- 1610 -

Lorategiko iturria eta klausura lurren inguruan hesi bat egin zen.

- 1663 -

Elizaren enkargua egin zen.

- 1675 -

Hormak amaituta zeuden.

- 1675 -

Teilatua bukatu.

- 1679 -

Gutziz bukatu zuten (gangak, lauzadura...).

- 1751 -

Ignacio de Iberok klaustroa leihoeekin itxi zuen.

- 1753 -

Ibaiari paralelo komentuaren handitzea burutu zen Ignacio de Iberoren eskutik.

- XX.MENDEAN ZEHAR -

Bestelako gehikuntzak egin zitzaizkion azken handitzearen hegoaldean.

- 1994 -

Estalkiaren eta dorrearen errestaurazioa.

- 2006 -

Monastegiaren hego zatian erreforma bat.



Azterturiko eremuan, komentuz gain, bada beste eraikin multzo bat ere. Industriari dagokion multzo hau hiru eraikinez osatzen da: etxebizitza eraikina (Ucin familiaren etxebizitza eraikina); bulego eraikina (Marcial Ucin-en ofizinak) eta pabiloia (Marcial Ucin S.A. enpresaren lehen fabrika eraiki zen lekuan dago, 1969an aurrez zegoen tailerra eraitsi eta biltegi hau eraiki zen). Multzo honek itxita dirau, fabrika Corrugadosi eskualdatu zitzaionetik.

Corrugados Azpeitia S.L enpresa denborarekin herriko garrantzitsuenaz izatera iritsi zen. Enpresa hori Ucindarrek (Usurbil eta Lasako fabrikekin loturik zeuden) 30. hamarkadan eraikitako familiako tailer txikian sortu zen. 1958an, altzairu-fabrikak jauzi egin eta elkarte anonimo gisa eratu zen.


60ko hamarkadan hasi eta XXI. mendera arte, nabe berriak eraikiz, enpresa handituz joan zen eta baita esku-aldatuz ere.

Nolanahi ere, mende amaieran, krisiaren ondorioz herrian historikoak ziren zenbait enpresa behin betirako itxi ziren: Organeria Española, Damaso Azcue... Azken itxiera, eta garrantzitsuenetakoa, garai batean herriaren ogibide nagusia izan zen fabrikarena izan zen, 2013an itxi zen Corrugados enpresa, Marcial Ucin izandakoa.

Gerora, bideragarritasun azterketa egin ostean, beriz martxan jartzea ez dela bideragarria ondorioztatua izan da. Azpeitiko paisaiaren parte inportantea da, lur eremu zabala hartzen baitu. Udalerriarekin alderatuz, azalera erlazioan izugarritzko tamaina duen munstro erraldoi hau herriak duen erroka handienetariko bat da, handiena ez esatearren.



Etxebizitza eraikina, 1962.



Bulegoen eraikina, 1962.



Etxebizitza eraikina, 2017.



Bulegoen eraikina 1986 eta 1991ko erreformen ondoren, 2017.



Marcial Ucin enpresaren bulegoen eraikinare gaur egungo fatxada.




Marcial Ucin enpresaren bulegoen eraikinare gaur egungo fatxada.



Marcial Ucin enpresaren bulegoen eraikinare gaur egungo fatxada.

- FABRIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA -



- 1923 -

Marcial Ucin-en lehen enpresa: burdin fundizioa eta nekazaritzarako makinaria (langile bakarra).

- 1926 -

Pabeloi berri bat eraiki zuten (urte horretan jarri zen trenbidea martxan).

- 1934 -

Enpresak 8 langile.

- 1935 -

Etxebizitza eraikina altxatu zuten Foruen Pasealekuan. Behe solairuan kokatu zen fabrikazioa.

- 1958 -

Marcial Ucin siderurgia-lantegia sortu zen. Ondorioz, bulegoen eraikina eraiki zen.

- 1962 -

Lehen pabiloia eraiki zuten.

- 1969 -

Pabiloiak bota eta biltegiak eraiki zituzten.

- 1981 -

Marcial Ucin S.A. 174 langile.

- 1986 -

Bulegoen birgaitze bat burutu zen, fatxada eta behe solairuan aldaketak (1983ko uholdeen ondorioz) egin ziren.

- 1991 -

Beste erreforma bat izan zuen bulego eraikinak, bertan igogailua jarri...

- 1992 -

Atzeko bulegoak eraiki ziren, zaharrei paralelo.

- 1999 -



Aceraliak erosi zuen enpresa. Foru pasealekuari dagokion eremua ordea ez zen esku aldatu, jada enpresa asko handitua zegoen eta handipena izan zen saldu zena.


- 2005 -

Alfonso Gallardoren eskuetara pasa zen handipena.

- 2013 -

Itxi egin zen enpresa. Foru Pasealekuko eremua, berriz, 1999tik dirau itxita.





- 13 -

- BEHE SOLAIRUA -



Eskala: 1/700


0 70 140 350 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian


- DIAGNOSIA -

1.3. GAUR EGUNGO EGOERA



- 1. SOLAIRUA -

- 14 -



- 2. SOLAIRUA -



Eskala: 1/700


0 70 140 350 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -


Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- DIAGNOSIA -


1.3. GAUR EGUNGO EGOERA




- ZELAI LUZE -
Pasealekuaren luzerako ebaketa.



- A -
Komentuaren zeharkako ebaketa.



- B -
Bulegoen barne patioa.



- D -
Bulegoen zeharkako ebaketa.

Eskala: 1/500 0 50 100 250 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -
Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- DIAGNOSIA - 1.3. GAUR EGUNGO EGOERA

- A.M.I.A. -

Taula hau burutu nahi izan da kokapen zein gaiaren potentziala eta gabeziak ikusi ahal izateko. Alde batetik, proiektuaren barneko indar eta ahultasunak aurreikusi dira. Beste aldetik, berriz, kanpo aukera eta mehatxuen inguruan hausnartu da. Horrela, informazioa sailkatu eta ondorio nagusiak azaleratzea izan da helburua, hainbat alderdi uztartu eta multzokatuz.

HERRIAREN NORABIDE BERRI BAT

Eremua plaza nagusitik eta alde zaharretik oso gertu dago. Bestalde, kanpotik lerro itxi bat dirudien arren, atzeko aldean berdegune zabalak ditu. Beraz, kokapen zentrikoak eta atzealdeak indarra ematen dio norabide berri bat irekitzeko.

GUNE INDUSTRIALA HERRIRATZEAREN LEHEN PAUSUA

Aurrez aipaturiko fundizio enpresaren gune industriala herriratzeko prozesuaren lehen pausua izan daiteke eremu honetako esku-hartzea. Honek hasera marka dezake, industria eta herriaren arteko mugan kokatzen baita.

EUSKARAREN SUSTAPENA

Helburu honek, azken finean, euskal kultura indartzea dakar.

KOKAPENAREN AUKERAK

Inguruan eraikin singular ugari aurki daitezke. Gainera, kultura jarduera ugari burutzen dira. Fatxada hau, nolabait, aktibitate handiko inguru batean izozturik gelditu den lerro bat da. Herriari dagokionez, beriz, lurralde mailan kokapen zentrala duen aldetik, aukera ona izan daiteke.

HARRESI IZAERA

Izoztuta gelditze hari lotua dago fatxada gogor eta itxiarekin. Herriaren bigarren harresi bilakatu dela dirudi, gaur egun igarogaitza baita.

IBAIA MUGA


Urola ibaia paralelo, alde zaharra eta orubearen artean agertzen da lubaki moduan, trataera oso gogorra baitu.

OSTALARITZA ESKAINTZA ITXIA

Herria bisitari mota bati lotua dago, dituen ostatuen perflaren ondorioz. Hiru dira guztira Azpeitiko hotelak, guztiak eredu ohiko bati jarraitzen diotelarik: banaka eta binakako logelak, gaueko 50 eurotik gorako prezioekin... Hau da, bisitari aniztasuna erabat mugatuta gelditzen dela ondorioztatu daiteke.

- ONDORIO NAGUSIA -

Diagnosiko atal honetatik proiektuaren kokapen eta gaiaren lotura ondorioztatu daiteke: bi hitzetan esanda, amasguneen uztarketa moduan uler daiteke. Gaiaren aldetik, euskararen amasgunea da Azpeitia. Kokapenaren aldetik, berriz, Azpeitiak amasgune berde beharra du, oso dentsifikatua dagoen hirigunean. Hau dela-eta, bi alderdi hauek uztartuko dira, Zelai Luze pasealekuko fatxada irekiz. Alde batetik, bertako erabilera gabeko eraikinak berraktibatuko dira euskara eta euskal kulturari loturiko programa txertatuz. Beste aldetik, eraikin hauen atzealdeko berdegune eta espazio zabalak herriari zabalduko zaio.



- BARNE INDARRAK -

- Herriari **norabide berri bat** irekitzeko aukera:
Orubearen kokapen zentrikoa, plaza nagusitik eta alde zaharretik oso gertu. Gunearen atzeko alderaka hedatzeko aukera dago esku-hartuz gero. Berdegune zabalak eskaini ditzake eremuak.
- Turismo mota berriak erakarri ditzake proposamenak. Turismoa herrirako ekonomia motore berri bat bilakatuz.
- **Gune industriala herriratzeko prozesuaren lehen pausua** emateko aukera.
- **Euskara sustatzeko** helburuak euskal kultura indartzea dakar.

- BARNE AHULTASUNAK -

- Fatxada gogorra eta itxia duen pasealekua, **harresi izaera** duena.
- Bi jabeago oso desberdinak, kudeaketa zailtasunak.
- Eraikin pribatu eta erabilera ezaren ondorioz, **igarogaitza** atzeko aldera.

- ONDORIOAK -



- KANPO AUKERAK -

- Eremuaren **inguruan eraikin singular** ugari aurki daitezke.
- Gunearen **hurbiltasunean jarduera** kultural... **anitzak** burutzen dira, aktibitatea dago.
- **Euskaraz bizitzeko aukera** ematen du herriak:
Euskararen erabilera altua da.
Tamaina ertaineko herria izanik, ezinbesteko zerbitzuen homiketa ona du.
- Bisitatzeko gune interesgarriak ditu inguruak:
Naturaz inguratutik dago bailara osoa.
Herrian badira hainbat gune interes turistikodunak: tren geltokia, Loiola...
- Mugikortasunari dagokionez:
Azpeitiak EAEn **kokapen estrategikoa** du, zentrala.
Garraio publiko egokia dago, bai bailaran zehar mugitzeko eta baita hiribururako ere.
Bidegorri sarea Iraetatik Legazpiraino.

- KANPO MEHATXUAK -

- **Ibaia muga** moduan agertzen da, alde zaharra eta orubearen arteko lubakia baititzen.
- **Herria ez** dago **turismorako prestatua**: ez merkataritza, ez ostalaritza...
- Bideragarria ez den **fabrikaren mugakide**.
- Dagoen turismoa eredu zaharrekoa eta garestia, hau da, bisitari mota bati lotua dago.



Ondoren erabili diren liburu zein bestelako iturriak aipatuko dira:

ARTXIBOA

- Foru ibilbidea 12 (garaiea), 1991. Erreferentzia: 2610-05.
- Foru ibilbidea 14 (pabeloia), 1962. Erreferentzia: 1992-30.
- Foru ibilbidea 14 (biltegia), 1969. Erreferentzia: 2350-03.
- Foru ibilbidea 14 (bulegoak), 1986. Erreferentzia: 2100-03.
- Foru ibilbidea 14 (bulegoak), 1991. Erreferentzia: 2583-02.
- Foru ibilbidea 14 (Iurpeko garaiea, eraiki gabe), 1991. Erreferentzia: 2604-01.
- Foru ibilbidea 14 (atzeko bulegoak), 1992. Erreferentzia: 2642-02.
- Foru ibilbidea 14 (pabeloiaren handitzea), 1994. Erreferentzia: 2734-11.
- Foru ibilbidea 16 (komentua), 2006. Erreferentzia: -

LIBURUAK

- i making HETEROTOPIAS laboratorio de estrategias. NOSITE-MYSITE.
- AZPEITiko hizkuntza-erabileraren eta hitanoaren presentziaren kale-neurketa, 2016. Soziolinguistika klusterra.
- Arte, arkitektura eta hirigintza industriaurreko Azpeitian.
- Antzinako Azpeititik Azpeiti berrira.
- Azpeitiko industria-lanaren oroimena.
- Ilustrazio garaia eta lehenengo karlismoa Azpeitian.
- Arquitectura conventual en Guipuzcoa.

ALDIZKARIAK

- Aldiri: LURRALDEA ETA HIZKUNTZA.
- Gipuzkoako hitza. 283. zenbakia.
- Argia. 2555. zenbakia.
- Azpeitian zer. 179. zenbakia.

WEBGUNEAK


- UEMA - Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.
- Gure Gipuzkoa.

HITZALDIAK

- Sevatur: BADA BESTELAKO TURISMO BAT.
- Kike Amonarriz: EUSKARAK 365 EGUN AZPEITIAN.

- HIRIGINTZA -

- LURZORUAREN SAILKAPENA -



- ERAIKINEN KATEGORIZAZIOA -



"11 AMUE" HE

Kokapena, mugapena eta azalera. Azpeitiko hirigunearen erdian kokatutako eremua da, Urola eta Ibaieder ibaien ondoan eta Alde Zahararen aldamenean. Frantziskotarren komentua, gaur egun Corrugados Azpeitia enpresa kokatuta dagoen lurzorua zati bat eta Ucin familiaren jabeagoak hartzen ditu.

Azalera: 90.922 m².

Lurzorua sailkapena: hiritarra.

Orografia: Laua

Antolamenduko irizpideak eta helburu orokorrak.

- Egungo industria-ehunaren eta lurzorua muturreko okupazio-baldintzen aldatzea, eta baita Urola ibaiaren aurrealdean kokatutako lerroak lehenik dauden komentuko lurzorua eta bizitegi-erakuntzaren ere, Ibaieder ibaiaren ibilgua eta bere eskuin alde Urola ibaiarekin bat egiten duen lekura lehengoratzeko eta hirigune hori espazio libre, ekipamendu eta bizitegiarako eta hirugarren sektoreko garapenekin berrantolatzea xedez. Horien intentsitate- eta nahasketa-baldintzak udalerri osorako formulatzen den proposamen globalaren testuinguruan zehazten dira, Amue dituen zentraltasun-baldintza berezien arabera.
- 468 etxebizitza eta hirugarren sektoreko erabileretarako 15.040 m²(t) eta komunitate-ekipamenduko zuzkiduretarako lurzoru antolatzea.
- Komentu-erakina hirugarren sektoreko edo zuzkidura-erabileretarako finkatzea, komentu-erabilera finkatzearen kalterik gabe.
- Udalerriko bide-sarea eremuan txertatzea, motordunen nahiz ez-motordunen mugikortasunari dagokiona, eta baita trenbideari dagokiona ere, bere garaian industria-erakuntza hipotekatutako trenbide-trazatua lehengoratu. Horrela, eremua Alde Zahararekin txertatzeko baldintzak hobetzea sustatzen da, batez ere, Enparantza Nagusiarekin, eta baita aldameneko bizitegi-eremuekin ere.
- Lehenik dauden eta proposatutako garapenarekin bateragarriak ez diren eraikinak eraistea, industria-jarduerak Trukutxo eremura lekualdatuta.

Baldintza orokorrak. Egiturazko honako baldintza hauek ezarri dira sistema lokalen sarea arautzeko:

- Ibaieder ibaiaren gainean oinezkoentzako lotura baten antolamendua, eremua Garmendialde eremuarekin lotuz.
- Landeta eremuarekin lotzeko antolamendu gehigarria Ibaieder ibaiaren gainean.
- Zuzkidura publikotara zuzenduta dago (komunitate-ekipamendua) 2.800 m²-ko gutxieneko azalera eremuaren ipar-ekialdeko muturrean, Urola eta Ibaieder ibaiak bat egiten duten tokian.

Baldintzatzaile gainjarriak. Eremuan kutsatuta egon litezkeen lurzoruen tratamendua.

Oro har, eraikuntzaren gutxieneko atzerapena Urola ibaiaren ibilguarekiko 15,00 metrokoa izango da eta 12,00 metrokoa Ibaieder ibaiarekiko, ibaien eta erreken ertzak antolatzeke LAPren arabera.


Amue eremuaren antolamendua uholde-arriskua murrizteak baldintzatu behar du, babes-neurrien bitartez eta ibilgua hobetzeko neurrien bitartez.


Katalogatutako eraikuntzak.

- Udal-babeserako proposatutako Ondasun Higiezin gisa: Santa Klara komentua (Frantziskotarrak / eliza eta klaustroa).

"2 GARMENDIALDE" HE

Perdillekin egingo diren garapen horiek eginez gero, gaur egun bertan dauden jarduerak beste toki batzuetara eraman beharko dira (helduen eskola, musika-eskola eta euskaltegia).






- HIRIGINTZA ONDORIOAK -

Hirigintza aldetik, beraz, hainbat helburu atera daitezke

- Aukeraturiko eremua Enparantza Nagusiarekin eta Garmendialde bizitegi-eremuekin (11 AMUE HE zatiaren mendebaldeko eremua, Ibaieder ibaiatz bestaldean) lotzeko baldintzak hobetzea.
- Eremua espazio libre, ekipamendu eta bizitegitarako erabiltzea.
- Komentua zuzkidura-erabileretarako finkatzea, komentu-erabilera kaltetu gabe.
- Gaur egun Perdillegi eremuan (subambito 2.2) dauden erabilerak lekualdatzea: helduen eskola, musika-eskola eta euskaltegia.



- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA -

Diagnosi eta hirigintza analisia burututa, proiektuaren helburuak finkatuko dira:

HERRIAREKIKO "HARRESIA" IREKITZEA

Aurrez aipatu bezala, honek bi arrazoi ditu atzean: Alde batetik, herriaren norabide berri bat irekitzeko. Beste aldetik, irekitze hori bertako eraikinak berraktibatzeke erabiltzea, momentuan herriak behar duenerako.

1. ARNASGUNE BERDEA ESKUGARRI BILAKATZEA

Herriari norabide berri bat irekitzearena, Udalaren asmoetako bat izan da urteetan zehar. Ikusi den moduan, Hirigintza Antolamendu Plan Orokorrean zehazten da, eremua espazio libre, ekipamendu eta bizitegitarako erabiltzea.

Alde batetik, espazio librea, bertan dagoen eremu berdeak herriaren dentsitateari arnasa emateko potentziala baitu.

Bestalde, ekipamendu eta bizitegi erabilerak, gaur egungo erabilera erlijioso eta industria erabilerak ezerezean baitaude. Industria erraldoi hau herriak duen erronka handienetarikoa bat da, handiena ez esatearren, eta aztertutako eremua, industria honen hasera da.

Egun itxirik dagoen eremua irekitzean, berau inguruarekin nola harremandu landu behar da, hau da, helburua nola irekiko den izango da.

2. PASEALEKUKO FATXADAREN BERRAKTIBATZEA

Eremua pasealekuarekin harremantzeko modua, eremuaren ipar irekierari dagokio.

Irekitze hori bertako eraikinak berraktibatzeke erabiltzea proposatzen da, momentuan herriak behar duenerako.

Egun, ikusi den bezala, turismorako zerbitzu falta dago, eta hirigintza aldetik, euskaltegia lekualdatzeko asmoa. Gainera, diagnosisan aztertu den moduan, Azpeitiak kokapen eta ezaugarri ezinhobeak ditu bi gai hauek joratzeko. Beraz, aurkeztuko den programak bi hauek uztartzeko ditu: euskara eta turismoa.

Gaur egun erabilerarik ez duten bi eraikin moldatzea proposatzen da:

- Sortez Garbiaren Komentuko handipena ("besoa").

Hirigintzako eraikinen kategorizazioaren arabera, komentuko zati hau da, babesturik ez dagoen bakarra. Baina, nahiz eta ez izan komentuen jatorrizko eraikinaren parte, Gipuzkoako komentuen bilakaera erakusten duen pieza da. Beraz, badu aspektu informatibo bat, eraikin multzo honen eboluzioaren berri ematen baitu. Gainera, eraikin honek apenas izan ditu eraldaketak, bere jatorrizko egoeran dagoela esan daiteke ia.

Balio historikoaz gain, balio arkitektonikoa duela ikus daiteke, tipologiaren ondorioz, oso espazio malgu eskaintzen du-eta.


Aspektu signifikatiboa, aldiz, hau da, emozionala eta sentimentala, diskutigarriagoa litzateke.

- Marcial Ucin enpresaren bulego eraikina.





Kasu honetan, diagnosiko atalean aztertu bezala, moldaketa bat baino gehiago jasan dituen eraikina da. Ondorioz, balio historikoa, hau da, garaiko errepresentazioa ala aspektu testimoniala, diluituta gelditu dela esan daiteke, eraikin honek fatxadan zuen adierazgarritasuna galdu baitu.

Balio arkitektonikoari dagokionez, eraikin honek duen egiturak ematen duen malgutasuna espazialki aberasgarria da.



Aspektu signifikatiboari dagokionez, enpresak herriaren bilakaeran izan duen aktibitatea ikusita, balioa izan baduela esan daiteke.



- INGURUAREKIKO LOTURAK -



- PASEALEKUKO FATXADA -



Aurrez finkatutako helburuetara iristeko, eremuaren antolakuntzarako estrategiak zehaztuko dira jarraian:

INGURUAREKIKO LOTURAK

Lehen esan bezala, egun itxirik dagoen eremua irekitzeko, beraz inguruarekin nola harremandu landu behar da, hau da, helburua nola irekiko den izango da.

Eremuak hegoaldean Corrugados enpresaren industria eraikinak ditu. Beraz, norabide horretan ez da irekiko.

Beste hiru aldeetara harremanduko da.

Mendebalderaka, Garmendialde bizitegi-eremuarekin zubi baten bidez harremanduko da (ikus III. inguruarekiko lotura).

Ekialderaka, gaur egun dagoen harrizko harresia kentzea proposatzen da.

Iparraldeko harremantzea izango da konplexuena, bertan, Zelai Luze pasealekuarekin lotuko da eremua. Honetarako, gaur egungo eraikinen "harresiari" hainbat ate irekiko zaizkio.

2. PASEALEKUKO FATXADAREN BERRAKTIBATZEA

Irekiguneak hautatzeko, lehenik Zelai Luze pasealekuko eraikinak aztertu dira, bost eraikin danera. Hauen artean, hainbat lotura gune detektatu dira. Lotura puntu horietatik, B, D eta E izango dira proposamenearan erabiliko direnak, hots, horietatik gauzatuko da eremua eta Enparantza Nagusiaren (eta alde zahararen) arteko lotura. Lotura puntu hauek, elementu komunikatzaileak izango dira. Tarteko eraikinek (komentuko besoa eta bulegoen eraikina), beriz, programa jasoko dute (turismoa eta euskara uztartuko dituen programa).

Etorkizunera begira, handipen posible bat aurreikusten da, sistema berarekin jarraituz. Elementu komunikatzaileak luzatzeko aukera dago. Ondoren, pasealekuari paralelo, egitura bat txerta daiteke, egitura malgu bat, zeinak erabilera desberdinak jaso ahalko dituen. Horrela, eremuaren kolonizazioa kontrolatu ahalko da; etorkizuneko beharrei erantzuteko eraikin berriak eremuan zehar barreiatu beharrean, hiri-mailako berdegune zabala mantentzeko.

LEGENDA

1. ILARA. Pasealekuko eraikinak:

- 1 Sortzez Garbiaren eliza.
- 2 Sortzez Garbiaren komentua (klaustroa).
- 3 Sortzez Garbiaren handipena ("besoa").
- 4 Marcial Ucin enpresaren bulegoen eraikina.
- 5 Marcial Ucin enpresaren etxebizitza eraikina.




2. ILARA. Handipen posiblea:

- 3' Etorkizuneko handipen posiblea.
- 4' Etorkizuneko handipen posiblea.
- B B elementuaren luzapena.
- D D elementuaren luzapena.
- E E elementuaren luzapena.




- A Eliza - komentuko klaustroa.
- B Komentuko klaustroa - handipena.
- D Komentuko handipena - bulegoen eraikina.
- E Bulegoen eraikina - etxebizitzaren eraikina.







- SISTEMAREN GARAPEN POSIBLEA -



- BANDEN ANTOLAKETA -



- ERABILERA POSIBLEAK -



Eremua kolonizatzen sistema bat proposatzen da, eremuaren azalera handia dela-eta ez baitu zentzurik Hiru Antolamendurako Plan Orokorrean esaten den gutzia proposamen batean egitea. Eremua espazio libre, ekipamendu eta bizitegitarako erabilteza zehazten da HAPOn. Beraz, proposatzen dena ondorengoa da: bertan ematen diren kopuruaren zati bat proiektatuko da, gaur egungo behararen arabera. Etorkizunean, beharra suertatzen denean, gainontzekoa burutzeko, irizpide ala sistema bat proposatuko da, eraiki bai baina eremuaren berdegune izaera mantendu ahal izateko kolonizazio sistema bat.

Sistema honetan, bi eragilek hartuko dute parte. Ade batetik, programa txertatuko zaien eraikinak; hasera batean bulegoen eraikina izango da, etorkizunean, komentuko besoarekin jarraitzeko aukera egongo da, eta aurrerago begira, egitura berriak eraiki ahal izango dira bigarren ilara batean, aurrekoei paralelo. Beste aldetik, espazio hauen elementu komunikatzaileak egongo dira.

EGITURA, ESPAZIO POTENTZIALA

Eraikinak egitura bezala ulertuko dira, espazio potentzial moduan, zeinetan erabilera desberdinak txertatu ahal diren. Aukera plataforma hau antolatzen, 7-8 metroko zabalerako moduluak proposatzen dira. Modulu bakoitza egituratzeko, banda sistema bat erabili da; galeria, gune heze, gune lehor eta kanpo espazio batez osatua, hurrenez hurren. Zerbitzu moduan, unitate bakoitzak instalakuntza patinillo bat izango du gune hezeen bandan.

Eraikin desberdinak izateak, egitura mota desberdinek ematen dituzten abantailak ematen ditu. Komentuak harrizko karga-hormek inguratutako guneak ditu. Bulegoen eraikinak, berriz, bere garaiko hormigoizko egiturak eskaintzen duen malgutasuna du. Azkenik, etorkizunerako proposatzen den egitura metalikoa litzateke, 7 x 7 x 7 metroko sare bat. Horrela, 7 metroko altuera beharko duten erabilerak ez ezik, 3,5 metrorekin nahikoa duten erabilerak ere sartu ahal dira. Kasurik txarrenera dimentsionaturiko egitura honek, beraz, produktiboetatik hasi eta bizitegi-erainoko espazioak bildu ahal dira.

Horrela, herriaren beharrei erantzuteko gai izango da egitura etorkizunean.

ELEMENTU KOMUNIKATZAILEAK

Lotura elementuak izango dira komunikatzaileak. Alde batetik, hitzak dioen moduan, komunikazio bertikal zein horizontalerako balioko dute; bertikala kalea eraikinekin lotzeko; horizontala, eraikinak beraien artean komunikatu ahal izateko. Beste aldetik, espazio zerbitzari ez ezik, espazio zerbitzatu ere jasoko dute, eraikinetako erabiltzaileek elkarbanatu ditzaketen erabilerak barneratuko baitiuzte.

Beste modu batean esanda, elementu komunikatzaile hauek izango dira, egun hutsik dirauten bi eraikin hauek berraktibatuko dituztenak.

LEGENDA

1. ILARA. Pasealekuko eraikinak:

3 Sortzez Garbiaren handipena ("besoa").

4 Marcial Ucin enpresaren bulegoen eraikina.

2. ILARA. Handipen posiblea:

3' Etorkizuneko handipen posiblea.

4' Etorkizuneko handipen posiblea.

KOLORE KODEA:

Elementu komunikatzailea.

Erabileran dagoen eraikin modulu.

Erabileran ez dagoen eraikin modulu.

MODULU KODEA:



M3 Komentuko modulu.

M4 Bulegoen eraikineko modulu.

M3=M4' Etorkizuneko modulu berria.



- GAUR EGUNGO EGOERA ETA BILAKAERA PROPOSAMENAK -



Proposamena faseka egitea aurrakusten da. Denboraren kontzeptua, jabeago desberdinak eta kudeaketa kontuak barneratuz.

Fase bakoitzak bere horretan funtzionatzeko autonomia izango du, baina, osotasun batean elkarren osagarri ere izango dira. Beraz, ez dute dependentsiarik izango, baina elkar osatu ahalko dira.

Jarraian fase independente batzuen proposamena luzatzen da. Hitz gutxitan esanda, ondoko prozedura izango litzateke: espazioa gizarteratzea, herritarren identifikazioa lortzeko; pasealekuko eraikinen berraktibazioa martxan jartzea; etorkizunerako hedapen posible bat egiteko aukera berraketa.

0. FASEA. Espazio librearen eskuratzeko:

Lehenik, belardiak dituen harresiak eraitsiko dira. Berdegunea herritarrentzat eskuragarri egitean, herriaren parte bihurtzea bilatuko da, jendea espazioarekin identifikatzea. Bitartean, eremuko eraikin batzuk eraitsiko dira eremua garbitzeko. Behin hau burututa, mendebaldeko auzunearrekin lotura bat proposatzen da, Ibaieder ibaiaren gainetik zubi bat eraikiz.

1. FASEA. Bulego eraikinaren berraktibatzea:

Behin eremua eta eraikinak gizarteratuta, pasealekuko eraikinen berraktibatzeari ekin ahalko zaio. Hasteko, bulegoen eraikinean esku-hartzea proposatzen da; beraz, alboetako bi elementu komunikatzaileak eta hauen azpiko lurpeko aparkalekuak osatuz. Lehenik, eraikina garbituko da, barneko banaketak eta behe solairuko itxurak kenduz. Ondoren, egokitzea etorriko da, bulegoen eraikinari solairu bat gehituko zaio (horretarako prest baitago eraikina, estalkiko zutabe hasierak ikusita). Azkenik, albo banatan lotura elementuak eraikiko dira. Fase honetan, euskaltegi eta ostatua txertatuko lirateke, gaur egungo beharrei erantzunez.

2. FASEA. Komentuko besoaren berraktibatzea:

Pasealekuko eraikinen potentziala ikustarazita aurreko fasean, etorkizuneko beharrei erantzuteko komentuko eraikina barnera dezake proposamenak. Hemen ere garbiketa bat beharko da, komentuari kasuan barne banaketak eraitsiz. Jarraian, egokitzea etorriko da, estalkiaren berritze eta eraikinaren zabalte bat proposatzen da. Azkenik, "B" elementu komunikatzailea eraiki eta "D" elementuarekin lotura egin (aurreko fasean eraikia, lotura puntuak aurreikusita izango litzake).

3. FASEA. Kolonizazio sistema:

Denborarekin, handitzeko beharra sortuz gero, lotura eraikinak luzatu eta komentu-bulegoen ardatzari paralelo, beste eraikin ilara bat eraikitzeke aukera dago. Eraikin hau, egitura bezala ikusten da, erabilera desberdinak jaso ahalko dituen espazio potentziala, "edukirik gabeko arkitektura".

BILAKAERA LEGENDA

0. FASEA. Espazio librearen eskuratzeko:

- 1 Eremuaren irekitzea: harresiak bota.
- 2 Eremuaren garbiketa.
- 3 Alboko auzoarekiko lotura.

1. FASEA. Bulego eraikinaren berraktibatzea:

- 4 Garbiketa.
- 5 Egokitzea.
- 6 Lotura elementuak.

2. FASEA. Komentuko besoaren berraktibatzea:

- 7 Garbiketa.
- 8 Egokitzea.
- 9 Lotura elementuak.

3. FASEA. Kolonizazio sistema:

- 10 Elementu komunikatzaileak luzatu.
- 11 Egitura berria eraiki.



- ERAIKINAREN PROGRAMA ETA FUNTZIONAMENDUA -

Behin eremuaren diagnosi eta estrategia orokorra izanda, Zelai Luze pasealekuko lerroan zentratu nahi da. Pausu honetan, programa zehatzagoa landuko da. Bulego eraikina, Frantziskanen komentua eta eranskin edota egoki ikusitako esku-hartzea landuko da.

Aurrez esan bezala, eremuaren azalera handia dela-eta, hainbat fase proposatuko dira denboran zehar egin ahal izango direnak: bata bestearen osagarri izan daitezkenak, baina bere horretan ere funtziona dezaketenak. Horrela, denboraren kontzeptua jorratuko da. Eremuaren kudeaketarekin lotuta egongo dena.

1. FASEA

Euskal etxea garatuko da. Euskaltegi eta ostatu batez osaturiko programa izango da. Azpeitiko HAPOak gaur egungo euskaltegia lekualdatzeko asmoa adierazten duenez, proposameneko programak barneratuko luke, ostatu batekin osagarri bilakatuz.

Beraz, bulegoen eraikinaren lehen solairuan euskaltegia kokatuko litzateke, eta bigarren solairuan, beriz, ostatua (60 pertsona hartzeko gaitasunarekin, eta jende askoko garaian 84ra handitzeko aukerarekin). Behe oinean, eraikinak inguruari erantzungo dio: postuak (azoka plazari osagarri merkaturako, festetan txosnetarako...), sotoko aparkalekuekarako (126 plaza) sarrera eta biltegi batekin (hiri baraztetako tresnak gordetzeko).

Bestalde, bulegoen eraikinak bi elementu komunikatzaile izango ditu alboetan. Batak, nagusiagoa denak, komentuko eraikianarekiko etorkizunerako lotura posibleak barneratuko ditu. Berau, komunikaziorako ez ezik, bulegoen eraikinean txertaturiko programek elkarbanatuko dituzten erabilerak jasotzeko erabiliko da. Beste lotura elementua, bigarren mailakoa izango da, hemen ere komunikazio bertikalaz gain, aisirako espazioak egongo dira, baina beste maila batean.

Beraz, bulegoen eraikineko moduluetan sartuko dira programa nagusiak eta hauen arteko komunikazio eta erabilera konpartituak alboetako lotura elementuen bidez emango dira. Horrela, hiruren arteko elkarrekinza bat eskuratuz.

Aipatu beharra dago, elementu hauek programaren komunikaziorako ez ezik, herrigunea atzeko eremu berdearekin lotzeko balioko dutenak direla.

ONDORENGO FASEAK


Ondorengo faseetako programa ez da zehaztuko, herrian beharrak sortuz joan ahala, eremuak horiei erantzutea bilatzen baita. Horretarako, programa proposatu beharrean, eremua kolonizatze sistema aurkeztu da aurrez, zeinaren egituraketak erabilera sorta zabala jaso dezakeen.


PROGRAMAREN AZALERAK (guztira 7.243,20 m²):

1	Elementu komun. nagusia:	594,72 m ²	2"	Ostatua:	710,00 m ²
1'	Harrera:	69,86 m ²	3	2. mailako elementu komun.:	264,85 m ²
2	Biltegia:	30,00 m ²	I	Instalakuntza solairua:	193,20 m ²
2	Postuak:	89,26 m ²	S'	Sotoko aparkalekuak (-1):	2.363,57 m ²
2'	Euskaltegia:	700,00 m ²	S''	Sotoko aparkalekuak (-2):	2.227,74 m ²

LOTUREN LEGENDA:

A	Euskaltegia (nagusia)	B'	Ostatua (bigarren maila)
A'	Euskaltegia (bigarren maila)	D	Komentuko 1. solairurako aurreikuspena
B	Ostatua (nagusia)	E	Komentuko 2. solairurako aurreikuspena






Eskala: 1/4.000 0 400 800 2.000 m


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA - 35. PROPOSAMEN PLANOAK

- ANTOLAKETA DROKORRA: KOKAPEN GERTUA -





Eskala: 1/400

0 40 60 200 m


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA -

3.5. PROPOSAMEN PLANOAK

- ANTOLAKETA OROKORRA: LEHEN SOLAIRUA -



- 28 -



Eskala: 1/400


0 40 60 200 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA - 3.5. PROPOSAMEN PLANOAK

- ANTOLAKETA OROKORRA: BIGARREN SOLAIRUA -



- 29 -



Eskala: 1/400

0 40 60 200 m


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA -

3.5. PROPOSAMEN PLANOAK

- ANTOLAKETA DROKORRA: LURPEKO LEHEN SOLAIRUA -



Eskala: 1/400

0 40 60 200 m


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA -

3.5. PROPOSAMEN PLANOAK


- ANTOLAKETA OROKORRA: LURPEKO BIGARREN SOLAIRUA -



- ANTOLAKETA DROKORRA: PASEALEKUKO ALTXAERA IPARRALDEA -




- ANTOLAKETA DROKORRA: BERDEGUNEKO ALTXAERA HEGALDEA -



- ANTOLAKETA OROKORRA: EBAKETA PASABIDE NAGUSITIK -





- 33 -



Eskala: 1/200

0 20 40 100 m





Eskala: 1/200


0 20 40 100 m

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA - 3.5. PROPOSAMEN PLANOAK

- GARATUTAKO ANTOLAKETA: EBAKETA PASABIDETIK -



- 37 -

Eskala: 1/200

0 20 40 100 m


- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian


- PROIEKTUA -

3.5. PROPOSAMEN PLANOAK

- GARATUTAKO ANTOLAKETA: EBAKETA BULEGOEN ERAIKINETIK -



- ELEMENTU KOMUNIKATZAILE NAGUSITIK EBAKETA FUGATUA -



- 39 -

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -


Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

- PROIEKTUA - 35. PROPOSAMEN PLANOAK

Eskala: 1/100

0 10 20 50 m


- ATMOSFERAK: PROPOSAMENA -



- ATMOSFERAK: POTENTZIALA -



- ATAL TEKNIKOA -



Egiturari dagokionez, mota bat baino gehiago dagoela azpimarratu behar da. Beraz, atalez atal aztertuko dira:

ELEMENTU KOMUNIKATZAILEAK

Elementu komunikatzaileen kasuan, egiturak garrantzi handia izango du, "ate" edo sarbide horren norabidea markatzen laguntzen baitu egiturak.

Gainera, etorkizunean hedatzeko aukera eman nahi denez, portikoentzako norabide egokiena pasealekuari paralelo jartzea da.

Materialtasunari begiratuz gero, kontrastea bilatzen da. Gaur egun, komentuen harrizko horma eta bulegoen eraikinaren hormigoia dira nagusi. Fatxada itxi eta astuna eratzten du multzo honek. Proposamenaren helburu nagusietako bat irekierak sortzea denez, "ate" hauei izaera arin eta igarokorra emango zaie. Hor portikoen lehen esandako portikoen norabidea, eta baita material modura zur laminatua erabiltzea ere. Bestalde, materialak gaurkotasuna adieraztea garrantzitsutzat jotzen da, komentuak XVI-XVIII. mendeak erakusten dituen moduan, eta bulegoen eraikinak XX. mendeko bigarren erdia gogorarazten duen bezala.

Beraz, portiko nagusiak zur laminatuzkoak izango dira, pasealekuari paralelo kokatuz. 20 x 40 zm-ko hiru zutabe izango dituzte denek, baina habeei dagokionez, elementu komunikatzailearen luzeeran zehar ebaketa aldatzen denez, portikoetako habeen kokapena ere moldatuz joango da, egitura eraikinaren beharretara moldatuz.

Portikoak elkarren artean lotzeko, zeharkako habek kokatuko dira; hauek ere zur laminatuzkoak. Material honen zurruntasun ezaren ondorioz, tirante metaliko batzuk beharko dira noizbehinka, egitura txarrantatzeko (ikus I. irudia).

Azkenik, forjatua. Hormigoi zelularrezko aurrekoiztutako plakak erabiliko dira. Habetik habera dauden distantziak handiak ez direnez, egokitzat ikusi da material hau (plaka hauek 7-8 metrorainoko argiak har ditzakete). Gainera, material honek dituen ezaugarrien ondorioz, isolamendu lana barne hartzen du forjatua. Suteen aurreko erresistentzia ere ekoizleak bermatzen du. Beraz, ezaugarri, erresistentzia eta obra errazaren abantailak ditu.

BULEGOEN ERAIKINA

Bulegoen eraikina da lehen fase honetako proposamenean dagoen erresistentzia. Honen egitura, hormigoi armatuzkoa da. Portiko nagusiek hiru zutabe dituzte (30 x 50 zm), eta hauek bi norabidetan daude loturik, 30 x 45 zm-ko hormigoizko habeez. Fojatu moduan 15-20 zm inguruko lauza bat du habeen gainean. Estalkia urez estalia du, eta bertan zutabe buruak ikus daitezke, solairu bat gehitzeko aukera ematen dutenak. Honako hauek XX. mende erdialdeko hormigoizko egituren ezaugarriak dira.

Eraikini hau berraktibatzean, hainbat moldaketa egingo zaizkio.





Alde batetik, solairu bat gehituko zaio, beraz, urezko estalkia kendu eta tratamendu egokia eman beharko zaio, pitza ez dadin. Ondoren, egitura metalikoko solairu bat gehituko zaio. Material hau hautatu da, bere arintasunagatik eta argi handiak estaltzeko gaitasunagatik (7-8 metrotako tartekak ditu eraikinak). Egitura metalikoaren gainean estalki berria ezariko da; honen forjatua lehen aipatu diren plakekin egingo da (II. irudian ikus daitezkeen norabidean).

ZIMENTAZIOA

Bulegoen eraikinak zimendu moduan zapata isolatuak ditu. Alboan zurezko egitura jartzean, hauetan esku-hartu beharko da, handipen bat eginez (ikus III. irudia).

Gainera, bulegoen eraikinari solairu bat gehitzean, honen suposatuko duen gainkarga kontuan hartuz, egitura ber kalkulatu beharko da, hormigoiaren egoera aztertu eta zimenduek jasango dutenentz ikusteko.





Proposamenean hiru gorputz bereizten dira: elementu komunikatzaile nagusia, bulegoen eraikina eta bigarren mailako elementu komunikatzailea. Gorputzen bereizketa hau instalakuntzetan islatuko da:

SUTEETATIK BABESTEKO SEGURTASUNA

Alde bakoitzean komunikazio elementu bat izateak ebakuazioa errazten du. Alde batetik, bi irteera izango ditu eraikinak (okupazio handikoa denez). Bestalde, 48,5 m-ko luzera duenez bulegoen eraikinak, ebakuazio distantziak bete ahal izateko ezinbestekoa da bi irteera puntu izatea. Distantzia hauek sotoan <50 m eta gainontzean <35 m (lo egiteko erabilera bat baitago) izango dira. Azkenik, ebakuazio altuera 14 m baino baxuagoa denez, eskailerak ez dira babestu behar.

GAINONTZEKO INSTALAKUNTZAK

- Elementu komunikatzaile nagusia.

Hau da proiektuaren burua, pasabide nagusia ez ezik, bulegoen eraikina berraktibatze erabiliko baita, bai erabilerari dagokionez, eta baita instalakuntzei dagokienez ere. Elementu hau izango da bulegoen eraikinaren zerbitzu hornitzailea, bere "motxila" izango balitz bezala. Azken mailan duen instalakuntza solairuan zentralizatuko dira makina guztiak. Horrela, patinillo nagusiak jaitziko dira tutuak, eta solairu bakoitzean galerian zehar joango dira, ondoren modulu bakoitzean behar dena sartzeko.

Elementu hornitzailea bai baina ez da hornitua izango. Ez da aurreikusten hemen kokaturiko erabilerak artifizialki klimatizaturik egon behar dutenik, izan ere, elementu komunikatzaile hau tarte espazio moduan ulertzen da. Beraz, sistema aktiboak izan beharrean, pasiboki babestuko da ingurugiroarekiko. Eraikinaren diseinuaren ondorioz bilatuko da ahalik eta erosotasun handiena.

Iparralde-hegoalde orientazioa duenez, elkar komunikaturik dauden bi gorputzez osatzen da: Iparralderaka gorputz itxia. Zuzeko CLT panel isolatuak erabiliko dira, kanpotik polikarbonatozko panelekin babestuko dira. Hemen irekidurak puntualki irekiko dira, eremua aireztatu ahal izateko. Hegoalderaka inbernadero funtzioa beteko duen beirazko gorputza. Azal bikoitza izango du zati honek: barnean beiratea egongo da (aireztapenerako irekierekin); kanpoaldetik, beriz, polikarbonatozko lamekin babestuko da eguzkitik. Hauen angelua aldatuz, urtaro desberdinetara egokitu ahalgo da.

Bi gorputz hauek eskailera bandan egingo dute bat. Uda eta neguko eskemetan ikus daiteke nola funtzionatuko lukeen eraikinak urtean zehar: Neguan inbernaderoak berotuko du gainontzeko eraikina. Hegoaldeko lamak itxiz, eguzki izpiei igarotzen utzi eta aire ganbera bero bat sortuko da bi azalen artean. Udan, beriz, diseinuarekin airearen mugimendu egokia bilatu da, kanpoko airea behetik sartu eta barneko aire beroa eraikinaren puntu gorenean kokaturiko irekiuneetatik kanporatuz. Aire sartzeko, alde batetik iparraldeko leihoak erabiliko dira, eta bestetik, hegoaldekoak (lamak irekiz, airea sartu eta eguzki izpiak igarotzea eragotziko da).

Bada hirugarren gorputz bat eraikin honetan: arez aipaturiko instalakuntza solairua. Honako honek bi zati izango ditu: eremu estalia eta estali gabea, makinaren beharrei jarraiki. Eremu hau polikarbonatozko lamekin estaliko da, baina ez da itxiko, aireztapen konstate batean egongo delarik.

- Bulegoen eraikina.



Aurrez esan bezala, banden zentzuari jarraiki, tutu nagusiak galeriatik joango dira eta beharren arabera bideratuko dira moduluetara. Bigarren banda gune hezeena da. Honako honek barneratuko ditu instalakuntzak behar dituzten espazioak. Banda horretan bertan, modulu bakoitzak bere instalakuntza bidea izango du, behe oinetik hasi eta estalkiraino. Ondorioz, moduluak erabiltako zerbitzuen kanporaketak instalakuntza bide hauetatik egin ahalgo da.

Artifizialki girotuta egongo den proposameneko eraikin bakarra izango da honako hau, bere erabilerak direla-eta.

- Bigarren mailako elementu komunikatzailea.

Bere funtzio nagusia komunikazio lanak burutzea izanik, instalakuntza solairuaren moduan, ez da itxirik egongo.





Atal hau, eraikuntza aldeko ebazpenari eskainiko zaio. Aurrez azaldu moduan, gorputz desberdinen giotze maila desberdina izango da, ondorioz, itxitura ere aldatuz joango da barneko erabilera eta orientazioaren arabera.

ELEMENTU KOMUNIKATZAILE NAGUSIA

Lehen esan bezala, honako honek ez du giotzeko sistema aktiborik izango. Tarte espazio moduan ulertu eta diseinuaren aldetik joko da bertako erosotasuna bilatzeko.

Horretarako erabiltzen dira bi itxitura mota desberdin, orientazioari jarraiki, iparraldera babestu eta hegoaldera berotegi moduan irekitzeko (instalakuntzen atalean azaldu bezala).

Bestalde, pasealekuarekiko jarrera dago; proiektuak gaur egun loturarik ez duten eraikinak lotu eta erabilera jartzen dituen aldetik eta baita pasealekuan izango duen adierazkortasunaren aldetik ere.

Gaur egun dauden eraikinek astuntasuna dute ezaugarritzat. Proposamenak irekitze helburua duenez, gardentasun eta arintasuna bilatuko du. Gainera, pasealekuaren eskala dela-eta bertara begiratu duen hutsarteak handiak izango dira (aireztapenerakoak ekialdera begira egongo dira, pasabidean zehar).

Materialtasunari dagokionez, zura eta polikarbonatoa izango dira nagusi elementu komunikatzaileetan.

LEGENDA

IPARRALDEKO ITXITURA:

- 1 Perfil metaliko bertikala
- 2 Polikarbonatozko lama horizontala
- 3 Instalakuntza gelako aireztapena
- 4 Perfil metaliko horizontala
- 5 Lamena euskarria
- 6 Polikarbonatozko panelak
- 7 30 mm-ko zurezko tabla (CLT panela)
- 8 20 mm-ko zurezko tabla (CLT panela)
- 9 Zurezko muntaga 60 x 200 mm (CLT panela)
- 10 Zur zuntzeko isolam. 200 mm (CLT panela)
- 11 Zurezko arotzeria finkoa
- 12 Mendebalderako eguzki babesa
- 13 Beira bikoitza
- 14 Perfil metalikoa
- 15 Estalkiko maldadun zurezko habea
- 16 Zurezko zutabea
- 17 Estalitako instalakuntza gela
- 18 Ostaturako instalakuntzak
- 19 Fojatuko plaken lotura bermatzeko armatua
- 20 Zurezko habea
- 21 Euskaltegirako instalakuntzak
- 22 Zurezko akabera
- 23 Zorua
- 24 Hormigoi zelularrezko plaka (forjatua)

HEGOALDEKO ITXITURA:


- 25 Estalkiko perfil metalikoa
- 26 Estalkiko beirate finkoa
- 27 Goiko aldeko aireztapen leihoa
- 28 Beirate finkoa
- 29 Beheko aldeko aireztapen leihoa
- 30 Polikarbonatozko lamak itxirik
- 31 Neguko eguzki izpiak
- 32 Polikarbonatozko lamak erdi irekirik
- 33 Udako eguzki izpiak
- 34 Perfil metaliko bertikala
- 35 Polikarbonatozko lamak irekirik
- 36 Aireztapenaren sarrera
- 37 Lama sistema eta egituraren lotura

Eskala: 1/30

0 3 6 15 m

LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian



BULEGOEN ERAIKINA

Eraikin honen espazialtasunari etekina aterako zaio proiektuan, baina, bere horretan utzi ordez, berraktibazioa emateko, eraldaketa batzuk proposatzen dira.

Behe oineko itxitura kenduko da, oinezkoen mugikortasuna hobetzeko eta aterpe zabalagoa lortzeko.

Lehen solairua mantendu egingo da, egoera ona dela-eta. Baina erosotasun aldetik hobekuntza nabaritzeko, itxitura isolatuko da barneko aldetik, trasdosatu batekin.

Bigarren solairua, egituraren atalean adierazi bezala, berria izango da. Honen itxuran, eraikinaren itxurarekin jarraituko da (termoartzila blokez eratuko da fatxada), baina hutsarteak irekitzean, materiala aldatuko da, zurezko arotzeriak jarri, elementu komunikatzaileen isla moduan. Modu honetan, eraikin zaharrak berria baldintzatzen duen moduan, berriak ere zaharra eraldatu egingo du, iraunkortasunik ez baitago moldaketarik gabe.

Elementu komunikatzailean pasealekuarekiko zurezko hutsarteak fatxadatik ateratzen diren moduan, bigarren solairu honetan zurezko hutsarteak fatxadan sartu egingo dira, galerian azpi banda bat sortuz. Horrela, fatxada itxitura soila izan beharrean, ostatuko erabilerak barne hartuko ditu (bertan egongela eta jangelak inprobisatu ahalko baitira, ikus oinak). Hutsarte hauek, badute beste helburu bat ere: alde batetik pasealekuaren eskalari erantzun behar diote (leihate handiarekin) eta, bestetik, ostatuko eskala domestikoari zerbitzu eman behar diote (barruntz sarturiko leihoekin).

Hutsarteez gain, fatxadan zehar agertuko den beste goi bat uren kanporaketa izango da. Estalki lauean urak jaso, eta zorrotenak kanpotik joango dira, egiturekin batera, eritmo bat emanez eraikinari.

LEGENDA

IPARRALDEKO ITXITURA:

- | | |
|--|--|
| 1 Estalki petoko isuraria | 19 Morterozko akabera |
| 2 Lamina iragazgaitza | 20 Hormigoi armatuzko lauza (15 zm) |
| 3 Geotextila | 21 Bigarren mailako habea (30 x 45 zm) |
| 4 Junta elastikoa | 22 Zorrotena |
| 5 Egitura eta forjatuaen lotura armatua | 23 Legarra |
| 6 Bigarren mailako habe metalikoa | 24 Isolamendua |
| 7 Uren ebakuaziorako kaxoleta | 25 Malda oinarri eta morteroa |
| 8 Zutabe metalikoa, babesarekin (30 x 30 zm) | 26 Hormigoi zelularreko plaka, forjatua |
| 9 Zurezko arotzeridun leihate finkoa | 27 Sabai faltzuaren euskarria |
| 10 Aurremarkoa | 28 Ostatuko instalakuntzak |
| 11 Kare morterozko akabera | 29 CLT panela (16 zm) |
| 12 Fojatua babesteko errematea | 30 Babesa (urezko estalkia izandakoarena) |
| 13 Trasdosatuaren zurezko perfila | 31 Euskaltegiko instalakuntzak |
| 14 Igeltsuzko plaka | 32 Sabai falttua |
| 15 Isolamendua | 33 Hormigoi armatuzko zutabea (30 x 50 zm) |
| 16 Adreiluzko fatxada | 34 Zorua |
| 17 Dintela | 35 Habe nagusia (30 x 45 zm) |
| 18 Arotzeria metalikodun leihoa | |

- LERROAK IREKIZ, SAKONTZEN ERROAK -

Zelai Luzeko eraikinen birmoldaketa euskara eta turismoa uztartzeko Azpeitian

GrAL Zuzendaria: Ibon Telleria. Ikaslea: Maitane Enara Diez Izagirre.